

**47. ALDIZKARIA - 2023ko martxoaren 7a**  
**14. ALDIZKARIA - 2024ko urtarrilaren 18a (tarifaren aldaketa)**

**26. ORDENANTZA: BARAÑAINGO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN ALORRAK ANTOLATZEN DITUEN JARDUERA, IKASTARO ETA LANTEGIETAN PARTE HARTZEKO ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

***Oinarria***

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezartzen da jarraikiz martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. azpiatalean xedatutakoari (Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legea), eta haren 28. artikuluko baimenaren babesean.

***Zerga-egitatea***

2. artikulua. Ordenantza honen zerga-egitatea hau da: Barañaingo Udaleko Gizarte Zerbitzuen Alorrek antolaturiko jarduera, ikastaro eta lantegietan parte hartzeko matrikulazioa dela eta, alderdi batek eskatuta egiten den udal jarduera, baldin eta horiek sartzen ez badira prezio publikoak aplikatzeko beste ordenantza batzuetan eta Barañaingo Udalak berariaz deklaritzen ez badu doakoak direla.

***Subjektu pasiboa***

3. artikulua. Ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaindu behar dute Barañaingo Udaleko Gizarte Zerbitzuen Alorrek antolaturiko jarduera, ikastaro eta lantegietan parte hartzea eskatzen duten pertsona fisikoek, horretarako behar den matrikula formalizatuz.

***Tarifak***

4. artikulua. Aplikatu beharreko tarifak ordenantza honen eranskinean ageri dira, edo kasuan-kasuan ezarriko dira, egin behar diren jardueren ezaugarri bereziei jarraikiz.

5. artikulua. Barañainen erroldaturik ez daudenak ikastaro eta lantegietan leku liberrik gelditzen bada baizik ez dira onartuko. Halakoek ikastaro bakoitzagatik ordaindu beharreko prezioa izanen da erroldatuei eskatutakoa baino handiagoa.

***Kudeaketako eta diru-bilketako arauak***

6. artikulua. Ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian eginen da diru-bilketa.

7. artikulua. Baldin, prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, zerbitzua egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan ez da dirurik itzuliko.

8. artikulua. Hemen arautzen den prezio publikoa dela-eta zorrik baldin bada, horiek premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatzen ahalko dira, eta diru-bilketari buruz aplikatzen ahal zaion araudiari jarraikiz.

***Azken xedapen bakarra***

Ordenantza hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean eta sortuko ditu ondorio juridiko osoak.

**ERANSKINA, 26. ORDENANTZA FISKALAREN TARIFENA: BARAÑAINGO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN ALORRAK ANTOLATZEN DITUEN JARDUERA, IKASTARO ETA LANTEGIETAN PARTE HARTZEKO ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

	<b>ERROLDATUAK (eurotan)</b>	<b>ERROLDATU GABEAK (eurotan)</b>
1.–Ikastaroak eta lantegiak (4. eta 5. puntuetakoak izan ezik)	10,50	15,50
2.–Zaugarritasun sozial eta/edo ekonomikoko egoeran dauden pertsonen zuzendutako jarduerak	Doan	Doan
3.–Baliabide propioak baliatuz eta kostu gehigarririk gabe egiten diren jarduerak	Doan	Doan
4.–Eskulangintzako, aisialdiko eta abarretako jarduerak, erretirodun eta/edo pentsiodunentzat	30,00	65,00
5.–Autonomiaren sustapeneko eta mendekotasunaren prebentzioko zerbitzua	33,00	65,00